

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/4/112

Izenburua: NEKAZARITZAKO PROBINTZIA GANBERA

Datak: 1932-1998

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 434 instalazio unitate

Sortzailea: NEKAZARITZAKO PROBINTZIA GANBERA

Erakundearen historia:

Nekazaritza Ganberak 1890eko azaroaren 14ko Errege Dekretuaren bidez sortu eta antolatu ziren. Egun hartaz geroztik, nekazaritzari zerbitzuak ematen eta beren egitura Espainiako gizartearen politikara egokitzen aritu dira.

1947ko apirilaren 18ko Dekretuaren bidez, Nekazaritza Ganbera Sindikal Ofizialak sortu ziren. Beren gain hartu zituzten nekazaritzako ganbera ofizialek eta ermandade probintzial sindikalek esleituta zituzten estatu mailako, maila paraestataleko eta sindikatu mailako eginkizunak, eta, horrela, probintziaren nekazaritza interesen ordezkari izan ziren.

Nekazarien Ganbera Sindikal Ofizialak (COSA) probintzia osoaren —kasu honetan, Nafarroa— gaineko jurisdikzioarekin eratu ziren. Ganbera ofizialen eta ermandade sindikalen ordura arteko eginkizunak hartu zituzten, esan bezala.

COSA ganberak zuzenbide publikoko korporazioa ziren eta antolakunde sindikalaren parte. Administrazio Publikoaren (Nekazaritza Ministerioa) kontsulta kidego gisa jarduten zuten, eta, nortasun juridikoa zutenez, era guztietako ondasunak eskuratu, eduki, besterendu edo zergapetu zitzaizkieten ondare ondorioetarako.

Tokiko eta eskualdeko ermandadeak, landako kooperatibak eta gainerako nekazaritzako unitate sindikalak Nekazaritzako Ganbera Sindikal Ofizialen barruan zeuden.

COSA ganberen buru presidente bat eta presidenteorde bat izaten ziren, bai eta idazkari bat ere. Kabildo batek gobernatzen zituen, presidenteak eta presidenteordeak eta berezko bokal eta hautetsi kopuru aldakor batek osatuak. Nekazaritza Ministerioak edo Sindikatuen Ordezkaritza Nazionalak eskuordetutako eginkizunak betetzen zituzten. Kabildoaren barruan Batzorde Iraunkor bat eratzen zen.

Nekazarien Ganbera Sindikal Ofizialak urtean behin biltzen ziren osoko bilkuran.

Sarreraren eta gastuen aurrekontua egin behar zuten, Nekazaritza Ministerioak onartua.

1977ko ekainaren 2ko Dekretuaren bidez sortu eta antolatu ziren Nekazaritza Ganberak. Zuzenbide Publikoko korporazioak ziren, nekazaritza gaiei buruzko kontsulta eta lankidetzako organo izaerakoak, eta Nekazaritza Ministerioaren bitartez Administrazioarekin organikoki lotuak. Berezko nortasun juridikoa zuten, estatutu propioen arabera arautzen ziren eta probintzia osoan zuten eskumena (Probintziako Nekazaritza Ganbera). Tokiko nekazaritza ganberak ere eratu ziren, udalerri mailako jarduera eta eskumenekoak.

Nekazaritza ganberak betekizun hauek zituzten, bakoitzak bere lurralde eremuan:

- Administrazioaren kontsulta organoak, nekazaritza gaiei buruzko arauak prestatzeko, aplikatzeko eta egiteko.
- Administrazioarekin lankidetzan aritzeko organoak, nekazaritza garatzeko eta hobetzeko ekintzei, erreformei edo bitartekaritzeari zegokienez.
- Nekazaritza arloko eginkizunak, zerbitzuak eta kudeaketak, propioak nahiz eskuordetuak.

Hauek ziren nekazaritza ganberen eginkizunak, Araubide Juridikoaren Oinarriak arautzen zituen 1986ko abenduaren 24ko Legearen arabera:

- Herri administrazioetako organo aholku emaile gisa jardutea, eta, haiek hala eskatuz gero, txostenak edo azterlanak egitea.
- Baliabideak eta ondarea administratzea.
- Eskuordetzen zitzaizkien eginkizunak.

Legearen arabera, ezin zituzten inola ere bete nekazarien eta abeltzainen ordezkaritza profesional edo sozioekonomikoko eginkizunak; izan ere, askatasunez eratutako erakunde profesionali zegozkien.

Erregimen ekonomikoari zegokionez, VI. kapituluan adierazten da iturri hauetatik zetozeela haien baliabideak:

- Estatuko eta autonomia erkidegoetako aurrekontu orokorretan ezarritako dirulaguntzetatik.
- errentetatik eta beren ondareko produktuetatik.
- dohaintzetatik, legatuetatik eta laguntzetatik.

Bukatzeko, 1321/1997 Errege Dekretua gehituko dugu, abuztuaren 1ekoa, Nekazaritza Ganberen arloko eginkizun eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituen.

Nekazaritza Ganberaren dokumentu funtsa Nafarroako Artxibo Garaikidean gordailutu zen, Nekazaritza departamentutik etorritako ondoz ondoko 3 transferentziaren bidez.

Funtsaren antolamendua:

112.01 GOBERNUA

- 112.01.01 Aktak
- 112.01.02 Parte-hartzea eta lankidetzak
- 112.01.03 Feriak eta merkatuak
- 112.01.04 Jarduera arauemailea
- 112.01.05 Hauteskunde jarduera

112.02 ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

- 112.02.01 Korrespondentzia
- 112.02.02 Baliabide materialen (ondarea) kudeaketa
- 112.02.03 Aholkularitza juridikoa
- 112.02.04 Artxiboa

112.03 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

- 112.03.01 Espediente pertsonalak
- 112.03.02 Langileriaren ordezkaritza
- 112.03.03 Langileriaren kudeaketa
- 112.03.04 Ordainsariak

112.04 EKONOMIAREN KUDEAKETA

- 112.04.01 Aurrekontuak eta likidazioak
- 112.04.02 Diru-sarreraren eta ordaintzen egiaztagirak
- 112.04.03 Kutxa

112.05 KONTSULTA ETA AHOLKULARITZA

- 112.05.01 Igorritako txosten eta memoriak
- 112.05.02 Jasotako txostenak eta alegazioak
- 112.05.03 Estatistikak
- 112.05.04 Nekazaritza kanpainaren erregulazioa
- 112.05.05 Gizarte ekintza

112.06. INBERTSIOEN SUSTAPENA

- 112.06.01 Obra proiektuak
- 112.06.02. Laguntzak eta dirulaguntzak

112.07 NEKAZARITZAKO ASOZIAZIONISMOA

- 112.07.01 Kolonizazioko talde sindikalak eta Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak (SAT)

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.